sanmarkos
Mankomunitatea

**ACTA Nº 279/17**

En la Ciudad de San Sebastián y en la Sala de Reuniones de la Mancomunidad de San Marcos, sita en la Calle Vitoria-Gasteiz nº 10, siendo las doce horas del mediodía del día 28 de abril del año dos mil diecisiete, se reúne la junta de la Mancomunidad de San Marcos, a fin de celebrar Sesión extraordinaria, previa convocatoria cursada al efecto con fecha 24 de abril de 2017.

Asisten los siguientes vocales de la Mancomunidad: Don Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga (Presidente) y Don Miguel Angel Diez Bustos, por el Ayuntamiento de Donostia–San Sebastián; Don Bernardo Lemos Taberna y Don Miguel Maria Rodriguez Barbero, por el Ayuntamiento de Errenteria; Doña Lore Suarez Linazasoro y Doña Miriam Cano Puy, por el Ayuntamiento de Pasaia; Don Martin Aldaya Olasagasti por el Ayuntamiento de Hernani; Don Jon Antxordoki Rekondo (suplente) y Don Agustin Valdivia Calvo, por el Ayuntamiento de Lasarte–Oria; Don Juan Martin Arregui Sagüés y Doña Zorione Etxezarraga Ortuondo (suplente) por el Ayuntamiento de Astigarraga; Don Miguel Angel Sanchez Antunez, y Don Enrique Figueroa Laboa (suplente) por el Ayuntamiento de Lezo; Doña Eneritz Arbelaitz Sarasti y Don Iñaki Pikabea Lasa, por el Ayuntamiento de Oiartzun; Don Mikel Pagola Tolosa Don Jorge Segurado Iriondo, por el Ayuntamiento de Urnieta y Doña Irene Garcia Palacios y Don Xabier Arregi Iparragirre, por el Ayuntamiento de Usurbil.

No ha asistido Doña Mª Coro Echeverria Tolosa, representante del ayuntamiento de Hernani.

Realiza las funciones de secretario Don Xabier Loiola Aristi. Lo nombró la Junta en sesión celebrada el 9 de febrero de 2012 para cumplir con ese cometido, atendiendo al artículo 7 de los Estatutos de la Mancomunidad.

Asisten también Don Julián Ortiz Arruabarrena, interventor de la Mancomunidad, Don Pedro Ugartemendia Garro, gerente de la Mancomunidad y Arantxa Ezeiza Zabala, administrativo de la Mancomunidad.

**279/17. AKTA**

Donostiako hirian, San Markoko Mankomunitateko Bilera Aretoan, Vitoria-Gasteiz kaleko 10. zenbakian, bi mila eta hamazazpiko apirilaren 28ko eguerdiko hamabietan, San Markoko Mankomunitatearen Batzarra bildu da, ezohiko saioa egiteko. Deialdia aldez aurretik egin zen, hain zuzen ere, 2017ko apirilaren 24ean.

Bertan hurrengo Mankomunitateko kideak izan dira: Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jauna (Lehendakaria) eta Miguel Angel Diez Bustos jauna, Donostiako Udalari ordezkatuz; Bernardo Lemos Taberna jauna eta Miguel Maria Rodriguez Barbero jauna, Errenteriako Udalari ordezkatuz; Lore Suarez Linazasoro andrea eta Miriam Cano Puy andrea, Pasaiako Udalari ordezkatuz; Martin Aldaya Olasagasti jauna, Hernaniko Udalari ordezkatuz; Jon Antxordoki Rekondo jauna (ordezkoa) eta Agustin Valdivia Calvo jauna, Lasarte-Oriako Udalari ordezkatuz; Juan Martin Arregui Sagües jauna eta Zorione Etxezarraga Ortuondo andrea (ordezkoa) Astigarragako udalari ordezkatuz; Miguel Sanchez Antunez jauna eta Enrique Figueroa Ortuondo jauna (ordezkoa), Lezoko Udalari ordezkatuz; Eneritz Arbelaitz Sarasti andrea eta Iñaki Pikabea Lasa jauna, Oiartzungo udalari ordezkatuz; Mikel Pagola Tolosa jauna eta Jorge Segurado Iriondo jauna, Urnietako Udalari ordezkatuz eta Irene Garcia Palacios andrea eta Xabier Arregi Iparragirre jauna, Usurbilgo Udalari ordezkatuz.

Ez da bileran izan Mª Coro Echeverria Tolosa andrea, Hernaniko Udaleko ordezkaria.

Idazkariaren lanetan Xabier Loiola Aristi jaunak jardun du. Eginkizun horietarako Junta honek izendatu zuen joan den 2012ko otsailaren 9ko batzarrean, Mankomunitateko estatutuek 7. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Halaber, bileran dira Julian Ortiz Arruabarrena jauna, Mankomunitateko kontu-hartzailea, Pedro Ugartemendia Garro jauna, Mankomunitateko kudeatzailea eta Arantxa Ezeiza Zabala, Mankomunitateko administraria.

## 1.- APROBACIÓN INICIAL PRESPUESTO 2017.

El presidente propone la aprobación del presupuesto remitido junto a la convocatoria y la propuesta del orden del día.

Recuerda que el proyecto de presupuesto se envío el 30 de marzo y que el 18 de abril se remitió un correo electrónico recordatorio del calendario para su aprobación.

Antes de comenzar el gerente con su exposición sobre los presupuestos, el presidente destaca que los presupuestos recogen una aportación municipal atendiendo a los servicios que reciben. Además, existe suficiente crédito en las partidas para los gastos que se prevén en 2017.

El gerente, valiéndose de diapositivas, explica los pormenores del proyecto de presupuesto. El interventor completa su intervención, analizándolo bajo el punto de vista de estabilidad presupuestaria.

Miguel María Rodríguez pregunta cuándo y cómo se realiza el ajuste entre el presupuesto y la liquidación con los Ayuntamientos.

El gerente le responde que una parte de las aportaciones municipales es para cubrir gastos fijos de la Mancomunidad. La otra parte es la previsión en función de toneladas de residuo recogidas. Ya que está última aportación se realiza siempre a través de la liquidación en función de las toneladas recogidas, se ejecuta una vez conocida la cantidad de toneladas y, por tanto, no es preciso un ajuste.

Miguel María Rodríguez también pregunta si se mantienen las tarifas de GHK por el tratamiento de los residuos.

En palabras del gerente, en 2016 el bioresiduo subió de 125 euros a 138 euros, una vez restado de la citada tarifa el IVA correspondiente.

Xabier Arregi valora positivamente que las aportaciones municipales en el proyecto de presupuesto se calculen en función de los servicios que se reciben. Nos encontramos ante un cambio de paradigma. Y porque el

## 1.- 2017KO AURREKONTUAREN HASIERAKO ONARPENA.

Lehendakariak deialdiarekin eta gai zerrendako proposamenekin batera bidalitako aurrekontuaren onarpena proposatu du.

Gogoratu du martxoaren 30ean bidali zela aurrekontu proiektua eta apirilaren 18 gogoratu zela mezu elektronikoz hura onartzeko egutegia.

Kudeatzaileak aurrekontuen aurkezpena hasi aurretik, lehendakariak nabarmendu du aurkezten diren aurrekontuak jasotzen diren zerbitzuen araberako ekarpena eskatzen diela udalei eta mankomunitateak 2017 aurreikusten dituen gastuetarako nahiko kreditu badagoela partidetan.

Kudeatzaileak diapositiben aurkezpen batekin azaldu ditu aurrekontu proiektuaren nondik norakoak. Kontuhartzaileak aurkezpena osatu du aurrekontuaren egonkortasun ikuspegia aztertuz.

Miguel Maria Rodriguezek galdetu du ea noiz eta nola egiten den udalekin aurrekontua eta likidazioaren arteko ajustea edo doiketa.

Kudeatzaileak dio udalen ekarpen zati bat Mankomunitateko gastu fijoetarako direla eta beste zati bat biltzen den hondakin tonaren araberako aurreikuspena. Azken ekarpen hau beti bildutako hondakin tonen araberako likidazio bidez egiten denez, tona kopurua ia ezagutu eta gero egiten denez ez du doiketarik behar.

Miguel Maria Rodriguezek ere galdetu du ea GHKren hondakina tratatzeko tarifak mantentzen diren.

Kudeatzaileak dio biohondakina 2016an igo zela 125 €tik 138 €tara, tarifari BEZa kendu ondorengoa.

Xabier Arregik modu positiboan baloratu du aurrekontu proiektuan udalen ekarpenak jasotzen diren zerbitzuen arabera kalkulatzea. Paradigma aldaketa baten aurrean gaudela dio. Eta ahaleginak merezi duelako, eta udalek

esfuerzo merece la pena, al objeto de tener los Ayuntamientos un conocimiento exacto de la modificación antes de la aprobación de los presupuestos, propone no aprobarlos hoy. El objetivo es que los técnicos municipales conozcan los pormenores de la modificación a través de un trabajo técnico. Recuerda que el pasado año se realizó la exposición en una Junta y una vez dada la opción para las aportaciones, se propuso la aprobación inicial en otra Junta. Sin embargo, este año a pesar de tener el proyecto un planteamiento para el reparto del gasto diferente, critica que se realice la aprobación inicial directamente.

aldaketaren berri zehatza aurrekontuak onartu aurretik izan dezaten, proposatu gaur ez onartzea eta udaleko teknikariekin lanketa tekniko bat egitea aldaketaren nondik norakoak ezagutzeko. Gogoratu du aurreko urtean batzar batean azalpena egin zela, ekarpenetako aukera eman eta gero, beste batzar batean, hasierako onarpena proposatu zela. Aurten ordea, nahiz eta gastuen banaketa planteamendu berri izan proiektuak, hasierako onarpena zuzenean egitea kritikatu du.

Según palabras del presidente, le sorprende tal petición, ya que en las dos juntas anteriores le han acusado de retrasarse con el presupuesto. Ahora, una vez presentado, se propone retrasar su aprobación? Menciona que la propuesta se va a votar hoy, ya que ha transcurrido más de un mes desde que se les envió a junteros/as el proyecto de presupuesto y, por tanto, no se le ha negado a nadie la posibilidad de solicitar una reunión o de realizar cualquier tipo de pregunta. Siendo una aprobación inicial, no hay ningún problema para exponerlo a cualquier técnico municipal que así lo solicite. Es más, el asume el compromiso de realizar cuantas reuniones se le soliciten en relación al tema. A estas alturas del año, el presidente señala que no debe retrasarse más el asunto.

Lehendakariak dio harritu egiten duela eskaera horrek, aurreko bi batzarretan aurrekontuarekin atzeratzen ari zela leporatu bai zioten eta orain, aurkeztu eta gero, atzeratzea proposatzen duten. Dio proposamena bozketan jarriko duela gaur, hilabete baino gehiago delako aurrekontu proiektua bidali zela batzarkideei eta azalpen bilerarik edo galdera aukerarik ez zaiolako inori ukatu. Hasierako onarpena izanik dio ez dagoela inongo arazorik aurrekontuak horrela eskatzen duten udal teknikariei azaltzeko eta berak konpromisoa hartzen duela horren inguruan eskatzen diren bilerak egiteko. Gauden urte sasoian egonda, gaia ez dela gehiago atzeratu behar dio lehendakariak.

Se han dado 105 votos favorables a la propuesta y 45,5 en contra. Por tanto, se aprueba la propuesta enviada junto al orden del día.

Deialdiarekin bidalitako proposamenari ez zaio emendakinik aurkeztu ez osokorik eta partzialik. Proposamena bozkatu eta onartu egin da 105 boto alde eta 45,5 boto kontra.

Los 105 votos favorables han sido emitidos por los representantes de los municipios de Donostia, Lasarte-Oria, Astigarraga, Lezo, Pasaia y Urnieta; y los 45,5 votos en contra corresponden a los representantes de los ayuntamientos de Errenteria, Hernani (un representante), Oiartzun y Usurbil.

Aldeko 105 botoak Donostia, Lasarte-Oria, Astigarraga, Lezo, Pasaia eta Urnietako udalerrietako ordezkarienak izan dira; aurkako 45,5 botoak Errenteria, Hernani (ordezkarietako bat), Oiartzun eta Usurbilgo Udaletako ordezkarienak dira.

Por tanto, se aprueba la propuesta enviada junto con la convocatoria y se adoptan los siguientes acuerdos:

Ondorioz deialdiarekin bidalitako proposamena onartu da, ondorengo erabakiak hartuz:

**PRIMERA**: APROBAR inicialmente el presupuesto general para el ejercicio 2017.

**LEHENENGOA**: 2017. ekitaldirako aurrekontu orokorra hasieran ONARTZEA.

-Dicho expediente contiene la previsión de recurrir al crédito en las siguientes condiciones esenciales:

Importe: 532.000€
Interés tipo fijo máximo del 1%
Plazo de amortización: 6 años

-Espediente honek maileguaren beharra duela aurreikusten da, ondoko baldintzetan:

Zenbatekoa: 532.000€
1% interes tipoa finko maximoa
Amortizazioa epea: 6 urte

**SEGUNDA**: Someter el expediente a exposición pública, en cumplimiento de lo dispuesto por el artículo 15.1 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

**BIGARRENA**: Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 15.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

En el caso de que no se hubieran presentado reclamaciones en este período de exposición pública, se considerará definitivamente aprobado el mencionado Presupuesto sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo, tal y como se establece en el artículo 15.1 citado.

Espedientea jendaurrean dagoen bitartean erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin betirako onartutzat joko da aipatutako Aurrekontu Orokorra, akordio berri bat onartu behar gabe aipatutako 15.1 artikuluan ezarrita dagoen bezala.

## 2.- DEJAR SIN EFECTO LA LICITACIÓN DEL CONTRATO DE EXPLOTACIÓN DEL VERTEDERO DE AIZMENDI.

## 2.-AIZMENDI ZABORTEGIKO HUSTIAKUNTZA KONTRATUAREN LIZITAZIOA BERTAN BEHERA UZTEA.

El gerente explica la propuesta de aprobación remitida por el presidente a la Junta.

Kudeatzaileak esplikatu du lehendakariak batzarrari luzatutako erabaki proposamena.

La propuesta dice los siguiente:

Proposamenak honela dio:

"La Junta de esta Mancomunidad, en la sesión celebrada el 16 de septiembre de 2016, acordó aprobar el expediente para la contratación del servicio de gestión de las instalaciones del centro de Aizmendi, con un presupuesto base de licitación de 3.240.000€ más I.V.A. y una duración de cuatro años prorrogables por otros dos.

"Mankomunitateko Batzarrak 2016ko irailaren 16an egindako bileran, Aizmendiko zentroaren instalazioei dagokien kudeaketa-zerbitzuaren kontratazio-espedientea onartzea erabaki zuen. lizitazio aurrekontu oinarria 3.240.000 € gehi B.E.Z.a eta lau urteko iraupena (beste bi urteko luzapenarekin) izanik.

Con el fin de que los interesados presentaran sus ofertas, el anuncio de licitación fue publicado en el Diario Oficial de la Unión Europea –el 24/09/2016- y en el Boletín Oficial del Estado y Boletín Oficial de Gipuzkoa - ambos publicados el 27/09/2016-.

Lizitazio iragarkia, interesatuek beren eskaintzak aurkez zitzaten, Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean – 2016/09/24an – baita Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen –biak 2016/09/27an-.

Dentro del plazo de presentación de proposiciones, se presentaron las siguientes:

Arautuko epean ondoko proposamenak aurkeztu ziren:

| prop | LICITADOR U.T.E. |
|---|---|
| 1 | FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A. |
| | URBYCOLAN |
| | ARREGI |
| | TXIMISTXHARRI, S.L. |
| 2 | SERKOM, GESTIÓN Y SERVICIOS GRUPO MOYUA, S.L. |
| | URBASER S.A. |

| prop | LIZITATZAILEA A.B.E. |
|---|---|
| 1 | "FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS S.A." |
| | "URBYCOLAN" |
| | "ARREGI" |
| | "TXIMISTXHARRI, S.L." |
| 2 | "SERKOM, GESTIÓN Y SERVICIOS GRUPO MOYUA, S.L." |
| | "URBASER S.A." |

La Mesa de Contratación, en cumplimiento de lo que prevén las normas de contratación y el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, calificó la documentación contenida en el sobre "A" presentado por los licitadores. Posteriormente, una vez se procedió a la apertura pública del sobre "B", se estableció la puntuación otorgada en base al criterio 2-subjetivo-calidad técnica de la oferta (ver informe del 7 de marzo).

Kontratazio mahaiak, kontratazio araudia eta administrazio baldintza orrien arabera, lizitatzaileek "A" gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu zuen. Aldiz, "B" gutun-azala irekita, 2. irizpidea-subjektiboa-eskaintzaren kalitate teknikoaren arabera puntuaketa eman zen (martxoaren 7ko txostenean azaldutakoa).

Con fecha de 9 de marzo se procedió a la apertura del sobre "C" ("proposición económica y criterios de valoración automática"). La Mesa solicitó a los servicios técnicos de la Mancomunidad que revisara las ofertas, y valorar así la coherencia con la oferta técnica y su adecuación a los pliegos.

Martxoaren 9an "C" gutun-azalaren ("proposamen ekonomikoa eta balorazio-irizpide automatikoak") irekiera egin zen. Mankomunitateko zerbitzu teknikoek eskaintzak aztertzea eskatu zuen Kontratazio mahaiak, eskaintza teknikoarekin duen koherentzia eta pleguen arabera balioztatuta.

En la sesión de la Mesa de Contratación del 24 marzo se presenta el informe del Director-Gerente de la Mancomunidad, procediendo así al debate y análisis originado a raíz de la discrepancia existente en el apartado de las amortizaciones de los activos que se proponen adquirir en ambas propuestas.

Martxoaren 24ean egindako Kontratazio Mahaiean, Makomunitateko Zuzendari-kudeatzailearen txostena aurkeztu da eta horrela, aktiboen amortizazioetarako egiten diren proposamenek sortarazi duten azterketa eta eztabaida eman da.

De conformidad con el artículo 155 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público y el artículo 22 del Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, así como con la propuesta que presenta (adjunta) la Mesa de Contratación,

Sektore Publikoko kontratuei buruzko legearen testu bateratuak 155. artikuloan eta 817/2009 Errege Dekretuak 22. artikuloan xedatutakoaren babesean, eta Kontratazio Mahaiak egindako proposamenarekin bat ondorengoa

**SE PROPONE:**

**PRIMERO**: Acordar el DESISTIMIENTO del procedimiento de adjudicación para el *"servicio de gestión de las instalaciones del centro de Aizmendi"*, en base al informe del 20 de marzo redactado por el Director–Gerente de la Mancomunidad, al no poder realizar la

**PROPOSATZEN DA:**

**LEHENENGOA**: "Aizmendiko zentroari dagozkion instalazioak kudeatzeko zerbitzuaren" esleipen-prozesurari UKO EGITEA erabakitzea, Mankomunitateko zuzendari-kudeatzaileak martxoaren 20an idatzitako txostenean oinarrituta. Nolanahi ere,

valoración de acuerdo al criterio 1 objetivo, tal y como está redactado en la cláusula 17 del pliego de condiciones administrativas particulares.

1. irizpidearekin bat ezin daiteke balioetsi, administrazio baldintza berezien agiriak 17. klausulan xedatzen duenari jarraiki.

**SEGUNDO:** PUBLICAR el acuerdo de desistimiento en los diarios oficiales que corresponda así como en el perfil del contratante, y notificar el acuerdo a los licitadores que han participado en el procedimiento."

**BIGARRENA**: Uko egitearen akordioa ARGITARATZEA, dagokien aldizkari ofizialetan baita kontratatzaile profilean. Prozeduran parte hartu duten lizitatzaileei ere jakinarazi behar zaie erabakia."

Xabier Arregi solicita que el límite horario que se establece para el vertedero en la página 13 del pliego de condiciones, no influya a los vehículos de Ayuntamientos miembros de la Mancomunidad. A los junteros les parece adecuada tal corrección.

Xabier Arregik eskatu du baldintza agiriko 13. Orrialdean jasotzen den zabortegiaren ordutegi mugak ez izatea eraginik mankomunitateko udaleko ibilgailuen gain. Batzarkideei egokia iruditu zaie zuzenketa hau.

Se procede a la votación de la propuesta con la corrección mencionada y se aprueba por unanimidad.

Aipatu zuzenketarekin proposamena bozkatu eta ahobatez onartu da.

## 3.- NUEVA LICITACIÓN DEL CONTRATO DE EXPLOTACIÓN DEL VERTEDERO DE AIZMENDI.

## 3.-AIZMENDI ZABORTEGIKO USTIAKUNTZA-KONTRATUAREN LIZITAZIO BERRIA.

El gerente explica la propuesta de aprobación remitida por el presidente a la Junta.

Kudeatzaileak esplikatu du lehendakariak batzarrari luzatutako erabaki proposamena.

La propuesta dice los siguiente:

Proposamenak honela dio:

"Una vez se ha aprobado, en su caso (en el punto anterior), el desistimiento de la licitación del contrato de explotación del vertedero de Aizmendi que fue aprobada por la Junta celebrada el 16 de septiembre de 2016, se presentan los nuevos pliegos para iniciar un nuevo procedimiento de licitación del "servicio de gestión de las instalaciones del centro de Aizmendi.

"Hala badagokio (aurreko gaian), Batzarrak 2016ko irailaren 16an onartu zuen "Aizmendiko zentroari dagozkion instalazioak kudeatzeko zerbitzuaren" kontratu lizitazioari uko egitea erabakita, Aizmendiko zentroari dagozkion instalazioak kudeatzeko zerbitzuaren lizitazio prozedura berri bat hasteko baldintza orriak aurkezten dira.

**SE PROPONE:**

**PROPOSATZEN DA:**

**PRIMERO**: Aprobar el expediente para un "*nuevo procedimiento de contratación del servicio de gestión de las instalaciones del centro de Aizmendi*", por procedimiento abierto y un presupuesto base de licitación anual de quinientos mil (500.000€) euros más cincuenta mil (50.000) euros de I.V.A. La duración del

**LEHENENGOA**: *"Aizmendiko zentroaren instalazioei dagokien kudeaketa-zerbitzua kontratatzeko prozedura berri baterako"* espedientea onartzea, prozedura ireki bidez eta urteko aurrekontu lizitazio oinarria bostehun mila (500.000€) euro gehi berrogeita hamar mila (50.000€) euroko BEZa izanik.

contrato es de cuatro años prorrogables por otros dos.

**SEGUNDO**: Aprobar los Pliegos de Prescripciones Técnicas así como el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que regirán el contrato.

**TERCERO**: Disponer de la apertura del procedimiento de adjudicación.

**CUARTO**: Aprobar el gasto con cargo a la partida 1.227.162.30.22.07 del vigente presupuesto de 2017.

**QUINTO**: Publicar la licitación en los diarios oficiales que corresponda y asimismo, en el perfil del contratante."

Se procede a votar la propuesta y se aprueba por unanimidad.

**4.- APROBACIÓN DE LA PLANTILLA ORGÁNICA Y LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO: ALEGACIONES PRESENTADAS EN PLAZO.**

El gerente explica la propuesta de aprobación remitida por el presidente a la Junta.

La propuesta dice los siguiente:

"Con fecha 1 de febrero de 2017, la Junta aprobó inicialmente la plantilla orgánica y la relación de puestos de trabajo 2017 de la Mancomunidad.

El anuncio de aprobación inicial se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del 22 de febrero, abriendo así el plazo para examinar el expediente y, en su caso, presentar las reclamaciones oportunas.

Durante ese período, con fecha 15 de marzo José M. Mariñelarena Garciandia, letrado del sindicato ELA, en nombre y representación del propio sindicato y de la trabajadora [redacted], presentó reclamación frente al mencionado acuerdo.

Kontratuak lau urteko iraupena du, beste bi urteko luzapeneko aukera izanik.

**BIGARRENA**: Kontratu hau arautuko duten agiriak, Administrazio Baldintza Bereziak eta Teknikoak, onartzea.

**HIRUGARRENA**: Esleipen prozedura irekiera xedatzea.

**LAUGARRENA**: Indarreko 2017 aurrekontuko 1.227.162.30.22.07 partidaren kargura gastua onartzea.

**BOSTGARRENA**: Lizitazioa kontratugilearen profilean eta dagokien aldizkari ofizialetan argitaratzea."

Proposamena bozkatu eta ahobatez onartu da.

**4.-PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN ONARPENA: EPEAN AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK.**

Kudeatzaileak esplikatu du lehendakariak batzarrari luzatutako erabaki proposamena.

Proposamenak honela dio:

"2017ko otsailaren 1an egindako Batzarrean, hasiera batez 2017. ekitaldirako Mankomunitatearen Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda onartu zen.

Otsailaren 22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen hasierako onarpen akordioa, erreklamazioak aurkezteko eta espedientea aztertzeko epea irekiz.

Epe horretan, martxoaren 15ean, Jose M. Mariñelarena Garciandiak, ELA sindikatuaren eta [redacted] langilearen ordez, aipatutako akordioaren aurka erreklamazioa aurkeztu zuen.

De acuerdo con todo lo anterior,

Aipatutako aurrekari guztiekin,

**SE PROPONE:**

**PROPOSATZEN DA:**

**PRIMERO**: ESTIMAR PARCIALMENTE la reclamación presentada por el Sr. Mariñelarena con fecha 15 de marzo de 2017, en nombre y representación del sindicato ELA y de , contra el acuerdo de la Junta de la Mancomunidad, de 1 de febrero de 2017, de aprobación inicial de la plantilla orgánica y de la relación de puestos de trabajo para el año 2017.

**LEHENENGOA**: Mankomunitateko Batzarrak 2017ko otsailaren 1eko saioan hartutako erabakiaren aurka ELA sindikatuaren eta aren izenean eta horiei ordezkatuz Mariñelarena jaunak 2017ko martxoaren 15ean aurkeztutako erreklamazioa ZATI BATEAN KONTUTAN HARTZEA. Erabaki hartan 2017. urterako langileen zerrenda organikoa eta lanpostuen zerrenda hasieran onartzen ziren.

**SEGUNDO**: Anular el citado acuerdo de aprobación inicial de la plantilla orgánica y de la relación de puestos de trabajo para el año 2017.

**BIGARRENA**: 2017. urterako langileen zerrenda organikoa eta lanpostuen zerrendaren hasierako onarpen erabakia baliogabetuko da.

**TERCERO**: Retrotraer las actuaciones al momento inicial de la tramitación de la propuesta de modificación de la relación de puestos de trabajo, para llevar a efecto la negociación establecida en la Ley y evacuar el resto de trámites del procedimiento administrativo común que resulten precisos.

**HIRUGARRENA**: Lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamenari buruzko izapideen hasierako unera itzuliko dira jarduerak, Legeak xedatzen duen negoziazioa gauzatzeko eta administrazio prozedura erkideak zehazten dituen gainerako izapideak burutzeko.

**CUARTO**: Notificar el presente acuerdo a los reclamantes y al resto de la plantilla de la Mancomunidad."

**LAUGARRENA**: Erabakia erreklamaziogileei eta Mankomunitateko gainerako langileei jakinaraziko zaie."

En palabras de Xabier Arregi en la Junta en la cual se analizó el asunto, tras preguntar él expresamente, basado en las explicaciones del gerente, no parecía que hubiese desacuerdo entre los trabajadores.

Xabier Arregik dio gaia aztertu zen batzarrean, berak horrela espresuki galdetuta, kudeatzaileak emandako azalpenetatik ez zuela antzeman langileen artean desadostasunik zegoenik.

El gerente le responde que ya se expusieron en aquella Junta los desacuerdos que pudieran existir.

Kudeatzaileak dio aipatu zirela batzar hartan egon zitezkeen desadostasunak.

Se procede a votar la propuesta y se aprueba por unanimidad.

Proposamena bozkatu eta ahobatez onartu da.

Antes de finalizar la Junta, el presidente señala que la próxima junta ordinaria se realizará el 19 de mayo, viernes, a las 12:00 del mediodía.

Batzarrari amaiera eman aurretik lehendakariak dio hurrengo maiatzaren 19an, ostirala, eguerdiko 12:00etan egingo dela batzar ohikoa.

sanmarkos
Mankomunitatea

Cierre de acta

Sin más asuntos que tratar, la PRESIDENCIA levanta la Sesión, siendo las trece horas y veinte minutos del mediodía del día expresado en el encabezamiento, extendiéndose de todo su contenido la presente ACTA que firmará la PRESIDENCIA conmigo, el SECRETARIO, de que DOY FE,

Akta ixtea

Lantzeko beste gairik izan ezean, LEHENDAKARITZAK saioa amaitutzat jo du buruan aipatutako eguneko EGUERDIKO ordubatak eta hogei direnean. Bere eduki guztiarekin AKTA hau idatzi da eta LEHENDAKARITZAK nirekin, IDAZKARIA naizen honekin batera, sinatuko du. Horrez gain, nik neuk FEDE EMATEN dut.

**EL PRESIDENTE/ LEHENDAKARIAK**

**EL SECRETARIO/IDAZKARIAK**

Gasteiz, 10. 20018 Donostia – IFK: P2000015D Tel 943 214 977 www.sanmarko.eus